# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

---

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistemaren gabeziak eta horien eragina kriminalitatean

### Egilea

Olatz Genova Zubia

### Gradua

Kriminologia

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

3. Osasuna eta ongizatea,
4. Kalitatezko hezkuntza,
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa,
10. Desberdintasunak murriztea,
16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak

### Laburpena

Hezkuntza sistema bat bera ere ez da perfektua, hots, guztiak hobetu daitezke. Ikuspuntu kriminologikotik, hezkuntzak kriminalitate tasak inhibitzeko edo murrizteko gai izan beharko luke. Baina egungo hezkuntzek dituzten gabeziak nahiz akatsak direla eta, ez da helburu hori betetzen ari. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hezkuntza sistemak, konkretuki, hainbat hutsune ditu kriminalitaterako arrisku faktoreak sustatzen dituena. Hori dela eta, gure heziketaren araudia aztertuz, beste herrialdeek erabiltzen duten heziketa metodologia analizatuz eta hezkuntzarekin harreman estua duten 3 pertsona elkarrizketatuz, kriminalitatean eragiten duten hezkuntza sistemako akatsak detektatu ditut. Halere, oker guztiak konpongarriak dira. Baina soilik gizarteko kide guztien lankidetzaren bidez izango gara gai horiek hobetzeko.

### 2030 Agendaren GIH Ekarpenak

1. Hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzea, existitzen diren gabezia eta akatsei aurre eginez. 2. Adingabeei heziketa osatuago eta hobeago bat eskaintzea, eta beraz, helduaro errealista batei aurre egiteko prestatzen laguntzea. 3. Kriminalitateko tasak murriztea. Konkretuki,

adingabe batek kriminalitatearekin harremanetan jartzeko duen probabilitateari eraginez. 4. Etorkizuneko irakasleen formakuntza hobetzea. Benetako beharrei aurre egiteko gai diren langileak formatuz.